

Programaren datu orokorrak

Departamentua:	90 - ADINBERRI
Atala:	9001 - ADINBERRI
Programa:	010 - Adinberri Fundazioa
Funtzionala:	463 - Ikerketa zientifikoa, teknikoa eta aplikatua

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Gipuzkoaren berrikuntza-ahalmena maximizatzea zahartze osasungarriaren alde; kontuan hartuta interes talde nagusien egoerak eta premiak, eta arreta xede komun bat betetzera bideratuz, hau da, bizitza osasungarria luzatzera. Horretarako, hiru helburu hartu dira oinarritzat (Triple Win for Europe):

- Herritarren osasuna eta bizi kalitatea hobetzea, arreta berezia jarrita adineko pertsonetan;
- Asistentzia eta osasun sistemaren zaintza zerbitzuen bikaintasuna eta jasangarritasuna epe luzera lortzeko ahaleginean laguntzea;
- Adineko pertsonen lotutako industriaren lehiakortasuna hobetzea, merkatuan hedatuko diren produktu eta zerbitzu berriak erabilia.

Egoeraren diagnostikoaren eboluzioa:

Herrialde aurreratuenetan izaten ari den biztanleriaren zahartze azkarraren ondorioz, gaur egungo paradigmak aldatzen ari dira gizarte konfigurazioari, garapen ekonomikoari eta hazkunde iraunkorrari dagokienez. Euskal Estatistika Erakundearen arabera (2023), Euskal Autonomia Erkidegoko (2.196.745) egungo populazioaren %23,5% 65 urteko muga gainditu du.

55 urtetik gorako biztanlegoa Gipuzkoan:

- 268.500 biztanle, 2021ean. (%37)
- 343.495 biztanleko aurreikuspena 2031erako (%46,5)

Mendekotasuna duen biztanlegoa Gipuzkoan:

- 29.000 biztanle, 2021ean.
- 36.000 biztanleko aurreikuspena 2031erako

Bizi-itxaropena 2023an, 83,7 urte

- Gizonezkoen bizi-itxaropena 65urte betetakoan, 19,3 urtetakoa da, hau da, 84,3 urte.
- Emakumezkoetan bizi-itxaropena 65urte betetakoan, 23,7 urtetakoa da, hau da, 88,7 urtetakoa.

Desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena:

- Gizonezkoetan 63 urtetakoa zen 1992an eta 70,5 urte izatera pasa zen 2018an
 - Emakumezkoetan 69 urtekoa zen 1992an eta 72,8 urte izatera pasa zen 2018an.
- Beraz, urteak irabazi dizkiogu bizitzari baina baita bizitza osasuntsua urteei ere.

Diagnostiko ekonomikoa:

- Gipuzkoako enpresek senior segmentuaren aukera ekonomikoa eta beharrianak ikus ditzaten laguntzea. (AIS eta SE prestakuntza)
- Seniorren, haien zaintzaileen eta arlo soziosanitarioko profesionalen premiei buruzko ezagutza-oinarri bat sortzea, partekatzea eta eguneratuta edukitzea, enpresek merkatura bideratutako irtenbideak garatu ahal izan ditzaten. (AIS)
- Garatutako soluzioen esperimentazioa, prototipatzea eta ingurune errealetan frogatzea bultzatzea. (Adinberri Labs sarea) (CPI_betiON)
- Ekintzailtza sustatzea eremu silverrean. (Laguntzen deialdia)
- Ekosistemako eragileen arteko lankidetzeta eta sinergiak sustatzea (enpresak, sistema soziosanitarioa, ekintzaileak, teknologia- eta ikerketa-zentroak, tokiko garapen-agentziak eta gizarte zibil antolatua) (komunitatea)
- Silver Economy-n Gipuzkoa erreferentziazko eskualde gisa ezagutaraztea, Gipuzkoako enpresen nazioartekotzea erraztuz eta Adinberrik identifikatutako aukera-eremuetako enpresen atzerriko inbertsioa erakarriz. (Polo Adinberri)

Beharraren eboluzioa:

Nahiz eta adineko pertsona gehienek beraien zahartzarora modu autonomoan biziko duten funtzio eta harremani dagokienez, biztanlegoa zahartzen ari denez, mendekotasuna izango duten biztanle kopurua nabarmenki haziko da, egungo 29.000tik 36.000ra pasako da 2031n. Aldaketa horrek lehen mailako erronka bat dakar berarekin, bai asistentzia ikuspegitik (zaintzen kalitatea hobetzea), bai ikuspegi sozialetik (egitura sozialak eta ekonomikoak aldaketa demografikora eta zahartzaroaren erronkara egokitzea) eta baita ikuspegi ekonomikotik ere aukera moduan.

Nori zuzendua:

Gizartea, ADINBERRko ekimenaren azken hartzailea izanik:

- Aktiboa / hauskorra / menpekoa
- Zaintzaile eta profesionalak
- Komunitateak eta erabiltzaileen elkarteak

- > Osasun sistemaren agenteak
- > Hirugarren sektoreko agenteak
- > I + G + b agenteak
- > Agenteak / prestakuntza
- > Herri Administrazioak
- > Enpresak eta enpresen elkarteak

Programaren estrategia.**1. Baliabideak (inputak):**

- Pertsonala
- Informazio prozesuetarako ekipamendua.
- Bulego materiala
- Hornidurak
- Komunikazioak. (+ WEB)
- Profesionalek edo enpresa espezializatuek egindako lanak

2. Garatu beharreko

- Ezagutza, ikerketa eta esperimentazioa sorkuntza (pilotatzeak, entsegu klinikoak, etab.)
- Jakintzaren transferentzia, komunikazioa eta sozializazioa eta produktu eta zerbitzu berrien hedapena
- Enpresen hazkuntza eta garapenari laguntza
- Eskariaren sustapena

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Balio-proposamena bere Talde Interesdunei (55 + eko taldea eta bere ingurunea, gizarte-osasun sistema eta ingurune ekonomikoa)

- Ekosistemen sorkuntza eta garapeneko ibilbideak,
- Prestakuntza ibilbideak.
- Berrikuntza ibilbideak.
- Produktuak eta zerbitzuak garatzeko ibilbideak.

Programaren arau esparrua:

- 9/2016 LEGEA, ekainaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa.
- 3/2007 Foru Araua, martxoaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko diru laguntzei buruzkoa, eta hori garatzeko erregelamendua, 24/2008 Foru Dekretuaz, apirilaren 29koaz, onartutakoa
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa
- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubidearen, martxoaren 27ko, 4/2007 Foru Araua


2020-2023 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO JARDUKETA, ENTITATEARENA

Urteko helburua: ADINBERRI bultzatzea, Gipuzkoako zahartze osasuntsu baten aldeko erreferentziazko estrategia berri gisa.


Adierazlea	Neurri-unitatea	Azken balioa	2023-ko Aurreikuspena	2023-ko Errealak	Agintaldiko helburua
AdinBerritik lagundutako I+G+b Proiektu kopurua (Bottom up eta Top Down)	Kopurua	85,00	104,00	104,00	85,00
ADINBERRI erreferentziazko zentroa abiaraztea 2023an	Bai/Ez	Ez	Bai	Ez	Bai
Fundazioaren proiektu traktoreetan parte hartzen duten agenteak	Kopurua	598,00	600,00	600,00	450,00

Joera

AdinBerritik lagundutako I+G+b Proiektu kopurua (Bottom up eta Top Down) - Kopurua



Fundazioaren proiektu traktoreetan parte hartzen duten agenteak - Kopurua



Memoria

2023ko ekitaldian, 2018-2023 Berrikuntza Agenda Estrategikoari dagozkion proiektu traktore eta jarduera-ildoak garatzen eta hedatzen jarraitu da, lehenetsitako 6 erronkei erantzuteko. Aldi berean, eta legegintzaldiaren amaierarekin batera, Berrikuntzako Agenda Estrategiko Berria diseinatzen eta definitzen hasi da, 2024-2027 aldia barne hartuko duena. Agenda horren abiapuntua aurreko Agendaren

Memoria

betetze-mailaren azterketa eta balantze kualitatibo eta kuantitatiboa da, bai eta egungo egoeraren diagnostikoa ere, Europako, Euskadiko eta Aldundiko testuinguru estrategiko berria kontuan hartuta.

Azterketa eta balantze kuantitatiboa

Laburbilduz, esan daiteke, ikuspegi kuantitatibotik, Agendaren hedapenaren balantzea oso ona dela; izan ere, AEBk planteatzen zituen proposamen guzti-guztiak abiarazi ditu ezagutza sortzeko, transferitzeko, enpresa-hazkundera eta -garapena bultzatzeko eta eskaria bultzatzeko.

Nabarmendu beharreko datu kuantitatibo gisa:

1. Bost palankak eta agendan aurreikusitako jarduera-ildo guztiak aktibatu ditu, zerga-tresna berriak diseinatu eta garatzea ezik.
2. Identifikatutako erronka sozioekonomikoei erantzuten dieten eta,aldi berean, bultzatutako proiektu esperimentalez elikatzen diren proiektu traktoreak jarri ditu abian.
3. Hainbat erakunde publikok eta pribatuk sustatutako 80 proiektu berritzaile/esperimental bultzatu ditu guztira, guztiak ere Adinberriren helburuei begira, 5 milioi euro baino gehiagoko zuzkidurarekin.

Azterketa eta balantze kualitatiboa

4. 598 eragilez osatutako ekosistema bat biltzea lortu du.
5. Prestakuntza Integraleko Plan bat diseinatu du sektore soziosanitarioaren beharrei erantzuteko 3 prestakuntza-ibilbideetatik: okupazionala, etengabea eta arautua. Plan horrek lurraldeko estrategiekin bat datozen 6 jarduera-ildo ditu. Datozen bi urteetarako 5.000 pertsonako inpaktua aurreikusten da.
6. Hariak proiektua lurralde osora zabaldu du, Gipuzkoako 10 eskualdeetan aurkeztu baitu, eta 1.549 pertsonak hartu dute parte.
7. Silver Economya bultzatzeko ibilbide oso bat definitu du, laguntza-tresnekin eta -zerbitzuekin bat etorritz.

Ekosistemako eta Kudeaketa Batzordeko ordezkariari egindako elkarrizketetan jasotakoaren laburpen gisa, honako hauek dira ondorio nagusiak:

Fundazioaren begirada bikoitza, soziala eta ekonomikoa, erreferentziatzko aktibotzat eta Fundazioaren bereizgarritzat hartzen da. Era berean, onartzen da horrek konplexutasuna gehitzen diela sailen arteko kudeaketari eta eragileen ekosistemaren kudeaketari, baliteke zenbait testuingurutan helburu berberak ez partekatzea.

Beste funtsezko alderdi bat, eta dagoeneko presente dagoena, paradigma berria da: bizitza-luzetasun berria eta bizitza osoaren ikuspegia, Adinberri dagoeneko orientazio horretan bereziki kokatutako eragileekin lankidetzan ari dena.

Aho batez uste dute 2018-2023ko jarduera-urte hauetan Adinberri erreferente izatea lortu duela hainbat eremutatik biztanleriaren zahartzearekin, zahartze osasungarrira bultzatzearekin eta hura zaintzeak dakarren erronkarekin lotuta dauden eragileentzat. Eta ez bakarrik Gipuzkoako Lurraldean, Adinberri gaur egun erreferentzia bat da zahartzearen arloan Euskadin.

Nabarmendu behar da Adinberri abian jartzeak, bat egiten duela egungo ekosistemako hainbat eragilek, hala nola hezkuntzakoak, ikerketakoak, aseguruetakoa eta abarrekoek, zahartzearen aldeko apustua egin eta identifikatu zuten unearrekin, beren erakundeentzat estrategikoa zela iritzita. Eragile horiek onartzen dute Adinberri funtsezkoa izan dela bere estrategien hedapena errazteko eta katalizatzeke, hainbat tresna, laguntza eta mekanismoren bidez, hala nola laguntza-programa, ekosistema bera, eta, oro har, Adinberri osatzen duen taldearen inplikazioa eta babesa.

Aho batez aitortzen da Fundazioko talde profesionalak egindako lana. Oso modu positiboan baloratzen da planifikatutako jarduerak hedatzeko erakutsi duen gaitasuna, txikiak izan arren, eta ekosistemaren ekimenekiko hurbiltasuna eta inplikazioa.

Hausnartu beharreko gai gisa,aldi berriari begira, estrategiaren irismenaren (heldu beharreko erronkak/proiektuak) eta beharrezko baliabideen arteko dimentsionamendua dago, bai taldearen egiturari dagokionez, bai baliabide ekonomikoei dagokienez. Hurrengo legegintzaldiari eta haren agenda berriari begira kontuan hartu beharko litzatekeen funtsezko gaia.

Memoria

Eragileen ekosistema da aitortzen den lorpenetako bat, nahiz eta uste den oraindik heltze-fase ertainean dagoela, baina Adinberrik zeregin oso garrantzitsua izan dezakeela. Esate baterako, oso paper interesgarria jokatzen du, enpresen aldetik eskaintza eta eskaria uztartzerakoan egiten duen bezala.

Era berean, Ekosistemak Fundazioan duen ordezkartza eta rola argitzen aurrera egin behar da, gaur egun GFaren % 100eko Patronatuarekin. Ildo horretan, dagoeneko aipatzen da Aholku Batzorde bat izatea, ekosistemaren beharrak eta interesak nolabait irudikatuko dituen, Adinberri bere etorkizuna bideratzen lagunduko diona eta ikuspegi publiko-pribatu-komunitarioa irudikatuko duena.

Fundazioak urte hauetan zehar erabili dituen tresnei dagokienez, oso positibotzat jo da laguntzen dekretuak proiektuak mobilizatzeko sortu duen gaitasuna. Elkarrizketatutako pertsonak identifikatu eta balioetsi egiten dute Adinberri deialdiaren alderdi bereizgarri bat, beste laguntza-deialdi batzuekiko, eta hori lotuta dago taldeak proiektuen garapenari laguntzeko, jarraipena egiteko eta laguntzeko duen gertutasunarekin.

Behatokia-SIA Fundazioa posizionatzeko tresna garrantzitsutzat hartzen da, baina ados dago haren irismena eta mantentzearen eta kudeaketaren aldeko konpromisoa ez direla Gipuzkoara mugatu behar, herrialde osora baizik.

Red Adinberri herri labs: Laguntza-deialdietatik eratorritako ekimenak probatzeko eta baliozkotzeko espazioak eman dira, baina, oro har, elkarrizketatutako pertsonak ez dute ekimenaren berri.

Erronka eta proiektu traktoreak:

o Silver Economy: Enpresaren eremua eta Silver Economy ere oso ondo baloratzen da. Eskaintza eta eskaria batzeko ekimena, enpresei dagokienez, oso positibotzat jotzen da, eta interesgarritzat jotzen da hasitako bideari jarraitzea.

o Prestakuntza: Adinprest proiektu eragilea oso modu positiboan baloratzen da. Adinberrik ematen dion berrikuntza-begirada zabala, ibilbide arautuak eta ez-arautuak kontuan hartzen baititu, Fundazioaren eta Agendaren esku hartzeko gune oso interesgarri eta beharrezko gisa ikusten da, baita aldi berrirako ere.

o 2020an egiten den Fundazioaren jardueraren fokalizazioa, aukera-eremuak Fundazioaren ekintza bideratu behar zuen gidaritzat hartzetik Proiektu traktore eta estrategikoetan operatibizatzen diren erronkatzat hartzera pasatuz, egokituz jotzen da, baina irismen oso zabaltzat ere jotzen da, eta, beraz, erronka bakoitza "lurreratu" beharko da, eta, horretarako, proiektu bultzatzaileak oso lagungarriak izango dira.

o Elkarrizketatuak dagoeneko garatzen ari diren trakzio-proiektuen artean, oro har, oso positiboki baloratzen dituzte Zaintza Herri Lab, Adinprest eta Hariak proiektuak. Ekimen horien ezaugarri nagusiak eta balorazio hori egiten laguntzen duten alderdiak honako hauek dira: helburu argi bat izatea, fokua jarrita; zerikusia duten eragileen parte-hartzea; ezarpenerako diseinu-aldia gainditzeko gai izatea.

Gobernantza-eredua: Gogoan izan behar da Adinberri Fundazioa erreferentziazko 11 zentroetako bat dela etorkizuneko sektoreetan eta lurraldearentzat estrategikoak diren sektoreetan ikerketa- eta garapen-proiektuak bultzatzeko, Etorkizuna Eraikizen esparruan sortuak. Alderdi horrek, berez, lankidetzazko gobernantza-eredu bat markatzen du, eta Gipuzkoa kudeaketa publikoaren abangoardian jarri du.

Entzunez eta esperimintatuz, pertsonak eta erakundeek elkarrekin lan egiteko aukera dute, lurraldea hobetzeko eta politika publiko jasagarriak hartzen laguntzeko.

Kudeaketa publikoa ulertzeko modu hori, nola ez, Adinberri Fundaziora eramaten da.

Testuinguru hori izanik, Fundazioak hasiera-hasieratik jarri zuen abian, 2018 eta 2019 bitartean, 100 erakunderi baino gehiagori egindako elkarrizketen eta 40 balio-balantzen bidezko entzute-prozesu bat. Balantza horien helburua, lehen aipatu bezala, eragile guztiekin eta Fundazioarekin konfiantzazko harremanak eraikitzea izan zen, proiektuak elkarlanean sor zitezten.

Garatu diren eta garatzen ari diren trakzio-proiektu guztiek EEren gobernantza-ereduari jarraitzen diote, Foru Erakundearen barruan zein kanpoan, entzute aktiboa, esperimintazioa eta ondorengo eskalatzea. Nabarmendu behar da Adinberriren kasuan gauzatzen ari den prozesua, lehenik eta behin gai hori lantzen

Memoria

ari diren ekimenak identifikatuz, eta, beraz, horien balioa azpimarratuz, bai eta ondorengo baterako sorkuntzako eta baterako partaidetzako prozesua ere, ahalik eta sektore anitzeko eragile gehien gehituta.

Etorkizuna Eraikiz ekimenarekin abian jarritako lankidetzarako gobernantzaren bigarren elementu garrantzitsu bat, eta horren ondorioz sortzen diren erreferentziazko zentro guztiena, horrek sustatzen duen erakundeen arteko lankidetzak da. Adinberriren kasuan, lankidetzak hori, bere proiektuak eta ekintzak diseinatzen eta/edo hedatzen zuzendua, Eusko Jaurlaritzako hainbat sailekin (Gizarte Politikak, Lana eta Enplegua, Osasuna, Garapen Ekonomikoa eta Hezkuntza), udalekin eta Lurraldearen Garapenerako Agentziekin eta euskal sektore publikoko beste erakunde batzuekin (Lanbide, IVAF, Tknika, Osakidetza, Biodonostia, SPRI edo Euskal Herriko Unibertsitatea) koordinatuta eta lankidetzan gauzatu da urte hauetan.

Entzuteko eta esperimendatzeko prozesua oso ondo baloratzen dute eragileek, eta horren erakusgarri da Fundazioaren inguruan sortutako egungo eragile- edo ekosistema-sarea.

Hasieran aipatu bezala, egindako azterketa eta balantzearekin batera, orain arte lantzen ari ginen proiektuak hedatzen jarraitu dugu, eta beste proiektu batzuk abiarazi ditugu, besteak beste, Berpiztu programak finantzatutakoak:

- Telelaguntza prediktiboa: 2022aren amaieran hasitako Merkatuaren Aurretiazko Kontsultaren prozesuak jarraipena du Berrikuntza Teknologikoko Erosketa Publikoaren ondorengo lizitazioarekin. Adinberri Fundazioak, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan, "teknologia disruptibo digitalen bidez iraupen luzeko zainketen esparruan telelaguntza prediktiboaren bidez etxean autonomia sustatzeko ekosistema konektatu bat garatzeko" erronkari erantzuteko argitaratzen du lizitazio hori. Lizitazio hori aitzindaria izan zen bi erakundeentzat, eta urtearen amaieran esleitu zitzaion, 886.325 euroan, Ibermática (Aiesa) UTE -Ilunion- enpresari. 2024an eta 2025ean gauzatuko da.

- BIBE proiektua (Bizitza Berria eta Betea-Nueva Longevidad y Vida Plena): Urte amaieran, Patronatuak onartu ondoren, Adinberri Fundazioaren eta Lezoko Udalaren arteko hitzarmena sinatzen da BIBE proiektua abian jartzeko, zahartzaroak gizarte aurreratuetan dituen erronka garrantzitsuenetako bati erantzuteko: zahartzaroan bizitza osoa lortzea eta gero eta luzeagoa den gizarte oso baten aurrerapena eta kohesioa lortzea. Proiektu hori gizarte-eragileen eta adituen sare baten bidez gauzatuko da (Aubixa Fundazioa, Aptes, Helduak Adi, Aiton Borda...) eta 300.000 euroko aurrekontua du. 2024 eta 2025 ekitaldietan gauzatuko da.

Bestalde, azaroaren 8an eta 9an, Adinberri Silver Forumaren (ASF) lehen edizioa egingo da, Adinberri Fundazioak antolatuta, Kursaal auditorioan, eta Euskadin egindako Silver Economy-ren lehen Nazioarteko Foroa izango da. Arrakasta handieneko ekitaldietako bat izan da Fundazioarentzat: 40 erakusketari, 500 bilera baino gehiago one to one, 30 ponentzia baino gehiago estatuan eta nazioartean, 40 tailer baino gehiago eta 1.300 pertsonatik gorako asistentzia.

Abenduan Hariak Kantuz-en 2. edizioa egiten da Donostiako Kursaalaren. Fundazioak eta Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak bultzatutako proiektua da, eta Harien I. Jarduera Planaren barruan dago. 600 pertsona baino gehiago bertaratu dira. Aurtengo edizioan, , hirugarren sektoreko 14 erakunderen erakustokiak ere antolatu dira, alde batetik, egiten duten lana ezagutarazteko eta, bestetik, boluntarioak erakartzeko.

Erreferentziako Zentroa: Erreferentziako Zentroari dagokionez, 2023ko uztailan hasi dira Erreferentziako Zentroa eraikitzeko obrak. Aurreikusitako epea 48 hilabetekoa izango dela aurreikusten da, 66,4 milioi euroko aurrekontuarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak funts propioekin azken hamarkadan egindako inbertsiorik handiena.

Helburuari lotutako jarduketa ildoak eta ekintzak

1. Jarduketa ildoak:

ADINBERRIren jasagarritasuna hedatu, indartu eta bermatzea, zahartze osasuntsu baten aldeko estrategia gisa.
















% 43,26



% 20,42

Ordainketa kredituak

	Hasierako aurrekontua	Gauzatzea	Sarrera lotua	Egoera
Jarduketa ildoak, guztira	2.249.325,40	1.140.828,00		
1.1 Ekintza ADINBERRI + poloaren diseinua	445.900,51	165.386,18		
1.2 Ekintza Erreferentzi Zentroa: Berrikuntza unitatearen diseinua	57.517,93	55.913,27		
1.3 Ekintza Lurraldeko Adinberri Lab sarea	46.270,54	44.492,45		
1.4 Ekintza Ekipamendu parkea	42.986,18	41.157,45		
1.5 Ekintza SIA: mantentzea eta eguneratzea	192.531,43	84.064,06		
1.6 Ekintza ADINBERRI ekosistema/komunitatea: Gobernantza	49.059,15	47.324,06		
1.7 Ekintza ADIN-BERRI proiektu traktorea: zahartzaroaren marko berria	403.897,04	147.599,06		
1.8 Ekintza ZAINTZA HERRI LAB proiektu traktorea	421.332,58	148.424,95		
1.9 Ekintza HARIAK proiektu traktorea	152.064,97	80.098,47		
1.10 Ekintza SILVER ECONOMY proiektu traktorea	291.386,28	185.216,57		
1.11 Ekintza Kapazitazioa/Adinprest proiektu traktorea	49.430,97	47.701,61		
1.12 Ekintza Gipuzkoa intergenerazionala proiektu traktorea	49.430,97	47.701,61		
1.13 Ekintza Inpaktuaren ebaluazioa	47.516,85	45.748,26		

GENERO BERDINTASUNEN PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Adineko pertsonak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Zainketa egokiak jasotzea

Beharraren eboluzioa:

Zahartzearen eta osasunaren esparrua, zalantzarik gabe, generoaren aldagaiari eragiten dion jarduera-eremua da. Hainbat ikerketaren arabera, estresa, pobrezia/gizarte-bazterketa, adina/egoera zibila, lan-baldintzak, familia-kargak, kulturarako eta hezkuntzarako sarbiderik eza, botererik eza, indarkeria/botere-harremanak dira emakumeen zahartze osasuntsuan, ongizatean eta osasunean eragiten duten faktoreak.

Euskadin bizi diren emakumeen eta gizonen artean dagoen aldea, besteak beste, prestakuntza-mailan, jardueratan eta diru-sarrera ekonomikoaren batezbestekoan, zabaldu egiten da adinak aurrera egin ahala, eta horrek zuzenean eragiten dio zahartzeari, ongizateari eta osasunari, genero-ikuspegitik begiratuta.




Datuak 2022 euskadin:

Bakardade- edo tristura-arazoak dituen biztanleria ehunekotan: emakumeak %4,11 eta gizonezkoak % 1,96.

"HARIAK: Bakardadeei aurre egiteko Gipuzkoako Estrategia"rekin errealitate horri aurre egiten jarraituko dugu.






Zainketen arloan ere ezinbestekoa izaten jarraitzen du gai honi heltzeak. Adinberrin, ADINPREST proiektuarekin jarraitzen dugu zaintzaileen lanbide-kualifikazioa egiaztatzen duen profesionaltasun-ziurtagiria lortzeko behar den prestakuntza eskuratzera bideratutako formakuntza eskeiniz.

Kuantifikazioa: 13.668,75 (% 1,20)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Egoera	Esleitutako adierazlea
Go.HO.1.2. 2/2015 Foru Araua eta Euskadin indarrean dagoen emakumeen eta gizonen berdintasunerako legea garatuta, konpromiso politikoa zehaztea.	(% 20,00)	ADINBERRI Fundazioak, Gipuzkoako ekosistemarekin gauzatzen diren proiektuen bidez, emakumeen gizarte eta lan posizioa indartzen du, emakumeen aurkako diskriminazio modu guztiak ezabatuz.		
Go.HO.5.1. Informazioaren sorreran, tratamenduan eta zabalkundearen sexu aldagaia sistematikoki txertatzen jarraitzea, eta pertsonen zein genero ikuspegia txertatzeko prozesuei eta prozedurei buruzko adierazleak sortzeko eta jasotzeko aurrerapausoak egitea.	(% 40,00)	Go.5.1.3. GFaren azterlanetan, planetan, txostenetan eta gainerako dokumentazio estrategikoetan datuak sexuaren arabera eta genero adierazleekin sartzea.		
Ek.HO.12.2. Gipuzkoan txirotasunaren feminizazioa murrizten jarraitzea.	(% 40,00)	Ek.12.2.2. Elkar-rekin Lanean foru programaren esparruan, gizarte bazterketan bizi diren edo egoera horretan egoteko arriskua duten emakumeak gizarteratzeko bideak lantzea, kontuan izanik aurre egin beharreko generoko egiturazko desberdintasunak.		

HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA
Beharraren eboluzioa:

Euskararen erabilera bultzatzeko beharrak jarraitzen du esparru honetan ere, bereziki zainketen arloan, erabiltzaile guztiek nahi duten hizkuntzan artatuak eta zainduak izan daitezzen. Gure formakuntzako proiektuetan, zaintzaileen kualifikazioa osatzeko, euskarara gerturatu eta oinarrizko ulermen eta erabilerak lortzen joateko ikastaroak txertatzeko lanean dihardugu.

Kategoria	Nola	Egoera
1.- Zerbitzu hizkuntza	Kapazitazio eta formakuntza saioetan, baita Adinprest programaren diseinuan ere euskararen erabilera sustatuz	
	Belaunaldien arteko harremanak sendotzeko abian jartzen diren proiektuetan euskara bermatzea izango da helburua	
11.- Tresna eta aplikazio informatikoak	Adimen aurreratuko sistema deritzon ADINBERRIren instrumentua euskaraz ere eskeiniko da	
2.- Lan hizkuntza	Ekosistemarekin izango diren harremanetan euskara lehenetsiko da	
4.- Beste herri administrazioekiko harremanak	Haria, bakardadeei aurreko egiteko Gipuzkoako strategiari jarraipena emanez beste herri administrazioekiko harremanetan euskara bultzatuta	

PARTAIDETZA PLANA

Beharraren eboluzioa:

2023. urtean zehar, Adinberrik parte hartzeko hainbat ekimen egiten jarraitu du zehaztutako proiektu eragileekin eta haiei lotutako tresnekin lotuta, zahartze-ekosistema sendotzeko, haren harremanak eta loturak sendotuz.

- Azaroa eta abendua: eskualdez eskualde lurralde-prozesu berria, bakardade-egoerei aurrea hartzeko eta/edo aurre egiteko proiektuak elkarrekin sustatzen eta garatzen jarraitzeko. (55 udal eta garapen-agentzia, Osakidetzako 4 ESI, tokiko hirugarren sektore sozialeko 77 erakunde)

- Azaroa: Adinberri Silver Forumaren 1. edizioa (40 erakusketari, 500 bilera one to one, hitzaldiak, tailerrak, 1.300 pertsona baino gehiago).


- Abendua: "Adinberri Hariak Kantuz" Gabonetako ekitaldiaren bigarren edizioa (600 pertsona baino gehiago eta 700 koralista baino gehiago eta hirugarren sektore sozialeko entitateetako 30 ordezkari).

Kuantifikazioa: 46.106,36 (% 4,04)

Kategoria	Kategoria %	Nola	Egoera
1. HAUSNARKETA ETA ERABAKIA HARTZEA	(% 100,00)	7. Bestelako partaidetza prozesuak	

GJH
Kuantifikazioa: 726.407,61 (% 63,67)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
 <p>3-OSASUNA ETA ONGIZATEA Guztiantzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea.</p>		493.489,43	
Helburua	3.X1 - Ingurune komunitarioan osasuna sustatzea, jarduera fisikoa sustatuz.	100.378,72	
Jarduketa ildoak			
	ADINBERRIren jasagarritasuna hedatu, indartu eta bermatzea, zahartze osasuntsu baten aldeko estrategia gisa.	100.378,72	
Helburua	3.X2 - Osasun-ikerketak eta -berrikuntza sustatzea.	53.158,38	
Jarduketa ildoak			
	ADINBERRIren jasagarritasuna hedatu, indartu eta bermatzea, zahartze osasuntsu baten aldeko estrategia gisa.	53.158,38	
Helburua	3.X3 - Gipuzkoako adinekoen eta ezintasunen bat duten pertsonen bizi kalitatea hobetzea.	339.952,33	
Jarduketa ildoak			
	ADINBERRIren jasagarritasuna hedatu, indartu eta bermatzea, zahartze osasuntsu baten aldeko estrategia gisa.	339.952,33	
 <p>8-LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA Guztiantzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasagarria, enplegu vetea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.</p>		232.918,18	
Helburua	8.08 - Lan eskubideak babestea eta lan ingurune segurua eta arriskurik gabea sustatzea langile guztientzat, langile migratzaileentzat barne, eta, bereziki, emakume migratzaileentzat eta enplegu prekarioak dituzten pertsonentzat.	23.850,81	
Jarduketa ildoak			
	ADINBERRIren jasagarritasuna hedatu, indartu eta bermatzea, zahartze osasuntsu baten aldeko estrategia gisa.	23.850,81	
Helburua	8.09 - Lanpostuak sortu eta tokiko kultura eta produktuak sustatuko dituen turismo jasagarria sustatzera bideratutako politika politikoak lantzea eta abian jartzea.	92.608,29	
Jarduketa ildoak			
	ADINBERRIren jasagarritasuna hedatu, indartu eta bermatzea, zahartze osasuntsu baten aldeko estrategia gisa.	92.608,29	
Helburua	8.X1 - Kualifikazio eta birziklatze profesionala sustatzea, enpresekin, unibertsitateekin eta lanbide heziketako zentroekin lankidetzan estuan, enpresa eta entitateetako prestakuntza duala eta praktikak bultzatuz.	23.850,81	

GJH, Helburu eta Jarduketa ildoak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
Jarduketa ildoak			
	ADINBERRIren jasagarritasuna hedatu, indartu eta bermatzea, zahartze osasuntsu baten aldeko estrategia gisa.	23.850,81	
Helburua	8.05 - Enplegu osoa eta produktiboa eta lan duina lortzea emakume eta gizon guztientzat, baita gazteentzat eta desgaitasuna duten pertsonentzat ere, bai eta balio bereko lanagatik ordainsari berdina jasotzeko aukera ere.	92.608,29	
Jarduketa ildoak			
	ADINBERRIren jasagarritasuna hedatu, indartu eta bermatzea, zahartze osasuntsu baten aldeko estrategia gisa.	92.608,29	
Guztira		726.407,61	

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL			
Gastuen kapituluak Capítulos gastos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Gauzatzea Ejecución	Gauzatze % % Ejecución
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	311.270,32	315.833,00	101,47
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	1.724.755,00	724.995,00	42,03
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS			
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES			
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	2.036.025,32	1.040.828,00	51,12
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS			
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	100.000,00	100.000,00	100,00
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL			
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	100.000,00	100.000,00	100,00
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS	113.300,00		
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS			
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras	113.300,00		
Guztira / Total	2.249.325,32	1.140.828,00	50,72

PROGRAMAREN GAUZATZEAREN LABURPENA / RESUMEN DE LA EJECUCIÓN DEL PROGRAMA

Planen zenbateko osoa, kapituluka Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak Créditos de pago		Konpromiso kredituak Créditos compromiso	
	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo	Estrategikoa Estratégico	Operatiboa Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK/ GASTOS DE PERSONAL	315.833,01			
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK/ GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	724.994,99			
3. FINANTZA GASTUAK/ GASTOS FINANCIEROS				
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES				
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	1.040.828,00			
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS				
6. INBERTSIO ERREALAK/ INVERSIONES REALES	100.000,00			
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL				
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	100.000,00			
8. AKTIBO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras				
Guztira / Total	1.140.828,00			
Gauzatze gradua / Grado de ejecución: %	50,72			

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA				
Sarreraren kapituluak Capítulos de ingresos	Hasierako aurrekontua Ppto Inicial	Gauzatze Ejecución	Gauzatze % % Ejecución	Gastuari lotutakoak Afectados a gasto
1. ZUZENEKO ZERGAK/ IMPUESTOS DIRECTOS				
2. ZEHARKAKO ZERGAK/ IMPUESTOS INDIRECTOS				
3. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK/ TASAS Y OTROS INGRESOS				
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK/ TRANSFERENCIAS CORRIENTES	2.149.325,32	1.040.828,00	48,43	1.040.828,00
5. ONDARE SARRERAK/ INGRESOS PATRIMONIALES				
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	2.149.325,32	1.040.828,00	48,43	1.040.828,00
6. INBERTSIO ERREALAK BESTERENTZEA/ ENAJENACION DE INVERSIONES REALES				
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK/ TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	100.000,00	100.000,00	100,00	
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	100.000,00	100.000,00	100,00	
8. AKTIKO FINANTZARIOAK/ ACTIVOS FINANCIEROS				
9. PASIBO FINANTZARIOAK/ PASIVOS FINANCIEROS				
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras				
Guztira / Total	2.249.325,32	1.140.828,00	50,72	1.040.828,00